

GENERO KONTZEPTUA GARAPENAREN ETA LANKIDETZAREN ESPARRUAN

(Denbora: 90 minutu)

Errealitate bat generoaren analisiaren bidez azterturik, testuinguru jakin batean gizon eta emakumeen arteko harremanei buruzko informazioa jaso dezakegu. Horrela ulertuta, generoa da baldintzak aztertzeko tresna nagusietako bat, edozein gizartetan emakumeak gizonekin erkatuz zein baldintzetan bizi diren aztertzeko tresna, alegia. Hau da, gizarte prozesuetan eta, beraz, garapen prozesuetan emakumeen baldintzak zein diren aztertzeko balio du.

Genero perspektiba diagnostiko tresna bat da, garapen proiektuak gauzatu, horien jarraipena egin eta ebaluatzeko metodologia bat; baina, horrez gain, alderdi eraldatzaile bat ere badu, politikoa eta ideologikoa. Gizarte aldaketak sortzea eragiten saiatzen da, generoen arteko harreman zuzenagoa lortu nahian.

Generoaren ikuspegitik egiten diren garapen proposamenek, beraz, ikuspegi zabalagoa eskatzen dute, pertsonen komunitateen garapenean esku hartzea eta horren onura jasotzea oztopatzen dieten egiturazko arazoak aztertzeko. Aztertzeko modua aldatu egin da, banaka hartutako emakumeak aztertzeetik zabalagoa den pertsonen generoaren alderdia kontuan hartzera; izan ere, hori jotzen da garapenean ematen diren desberdintasunen faktore erabakigarritzat. Beraz, konponbideak emakume zein gizonek lortzeko modukoak izan behar dira, gizarte osoari onura ekarri eta gizarte osoa aldatu ahal izateko.

Gainera, horrek dakar generoen arteko desberdintasunak orain arte baino testuinguru zabalago batean kokatzea: kontua da analisi-ardatz gisa ulertu behar direla, zeharka, politika, programa, proiektu eta lankidetzaren eremu guztiak ukitzen dituen ardatz gisa.

Horrela, garapenerako lankidetzaren proiektuek, oinarritzeko premiak ase, txirotasun egoerak gaitzitu, lanaren eraginkortasuna eta emankortasuna areagotu, eta gatazken edo natura eta ingurumen hondamendien eragina leundu nahi dutenek, giltzarri izango den elementu bat jaso beharko dute: zuzentasun parametroa, eta genero izaerako erlazio-ikuspegi batetik egingo dute.

Garapenaren alderdi berria baino, generoa definitu beharreko berezko erreferente bat da, hori behar bezala ulertzeak prozesuaren maila ia guztiei ukitzen die-eta. Hori guztia kontuan hartuta, garapenari beste esparru etiko batean heldu behar diogu, eta esparru horren zutabeen artean iraunkortasuna, demokrazia, giza eskubideen errespetua eta genero eta gizarte berdintasuna egongo dira.

Hala ere, generoaren ikuspegia oraindik orain gehitu eta ezarri da garapenaren arlo jakin batzuetan. Beraz, garapena lortzeko lankidetzaren arloan, emakumei eta generoari buruzko gaiak aztertzeko modua eboluzionatuz joan da urteetan zehar.

GARAPENEAN EMAKUMEEK IZAN BEHAR DUTEN ESKU-HARTZEARI BURUZKO IKUSMOLDE ETA IRUDIEN EBOLUZIO HISTORIKOA

Garapenaren lehenengo hamarraldia (1960)

- Haren oinarria zen Nazio Produktu Gordinaren etekinak "iragaztearen" filosofia.
- Garapena bizkortu zuen demografia hazkundeak txirotasun gehiago ekarri zuen.
- Garapen proiektu eta proposamenetan emakumeak erabat ikusiezinak ziren.
- 70eko hamarraldian, lehenengo aldiz, emakumeak nagusi izaten hasi ziren emankortasunaren joerak zehazteko orduan.
- Emakumeak ugaltze rolean baino ez zituzten ikusten. Emakumeak mendeko, emazte eta amatzat jotzen zituzten.

Garapenaren bigarren hamarraldia (1970)

- Garapena premia larrienak zituztenen arabera planteatu zuten. Estrategia horri "zuzentasun hazkundea" esan zioten.
- Lehenetasunak ezarri zituzten, txiroen bizi-maila hobetzeko, eta horien artean emakumeena hobetzeko. Hala ere, emakumeak mendekotzat hartzen jarraitu zuten.
- Garapenaren jardueran aldaketa garrantzitsua izan zen: gizarte eta giza alderdiak lehenetasun bilakatu ziren.
- Emakumea familia barneko eragile ekonomikotzat hartzen hasi ziren, eta familia hori unitatetzat hartu zuten. Ez zituzten aintzat hartzen familia barneko botere erlazioak.
- Boserup-en lan agertu zen (1970), eta adierazi zuen garapen proiektuetan emakumeak baztertu egiten zituztela.
- EG Emakumea Garapenean izeneko korrontea jaio zen. Haren helburua zen emakumeak garapenean integratzea eta horiek duten ekoizpen ahalmena baliatzea.
- Emakumeak garapenean integratzeko nahi horrek honako ondorio hau baino ez zuen ekarri: emakumeentzako eremutzat jo ohi zirenetan gora egin zuen produktibitateak.

Garapenaren hirugarren hamarraldia (1980)

- Nazioarteko Moneta Funtsaren (NMF) egokitze estrukturaleko programekin eta merkatu askearen filosofiarekin batera etorri zen.
- Emakumeek murrizketa sozialak jasan behar izan zituzten, eta haien lana areagotu egin zen zenbait arlotan: elikadura ekoizpenean eta gaixoak eta umeak zaintzeko lanetan.
- Ikuspegi horrek emakumeen jarduera ekonomikoa onartu zuen, eta horien premia praktikoak identifikatu; hala ere, ez zuen proposatzen emakumeen gizarte egoera aldatzeko estrategiarik.
- Garai berean, Mundu Konferentzia izan zen Nairobin (1985); hori alde batera utzita, DAWN-MUDAR emakume taldeak garapenari buruzko txosten bat aurkeztu zuen, Hirugarren munduko emakumeen ikuspuntutik eginikoa.
- Horien helburua zen garapenaren paradigma berri bat eraikitzea, Hirugarren munduko emakumeen ikuspuntutik.
- Horien helburua zen garapenaren paradigma berri bat eraikitzea, emakumeek egun pairatzen duten mendekotasuna aldatzeko, gizartean duten maila hobetuz eta buruestimua areagotuz.

Garapenaren laugarren hamarraldia (1990)

- Paradigma berria, garapen politikak eta nazioarteko lankidetzak giza garapen iraunkorraren alde bideratu nahi dituenak.
- GG Generoa garapenean ikusmoldea agertu zen, emakumeen mendekotasuna ulertu ahal izateko botere eta gatazka harremanak oinarritzat hartzen zituenak.
- GG ikusmoldeak proposatzen zuen analisiaren erdigunea generoen arteko harremanak izatea. Zalantzan jarri zuen garapen eredu nagusia, txirotasuna eta desberdintasuna sortzen zuelako, eta giza garapen iraunkor eta zuzena proposatu zuen, emakumeei boterea eskuratzeko erraztasuna emango ziena.
- Emakumeak aldaketa horretarako eragile gisa ikusten zituzten: nahitaez entzun behar zitzaizkien proiektuaren aldi guztietan, eta beharrezkoa zen erabakiak hartzen diren eremuetan onartuak izan zitezen.
- GG paradigmak erronka bi zeuzkan aurrez aurre: batetik, zalantzan jarri zituen garapen jardueren ideia eta balioak; eta bestetik, jarrera politikoa hartu zuen: emakumeak hiritar oso bilakatu zituen.

Informazio iturriak:

- Murguialday, C. *et al.* (2000): *Perspectiva de género en las ONGD vascas*. Bilbo: Emakumea eta Garapena Mintegia eta Mugarik Gabe.

“Emakumeak garapenean” ikuspuntutik, “generoa garapenean” ikusmoldera	
EMAKUMEAK GARAPENEAN	GENEROA ETA GARAPENA
1. Ikuspuntua	
Emakumeak arazoaren muintzat jotzen dituen ikuspuntua	Gizonen eta emakumeen garapena bultzatu nahi duen ikuspuntua
2. Gai nagusia	
Emakumeak	Gizon eta emakumeen arteko harremanak
3. Arazoa	
Emakumeak garapen prozesutik baztertzea (ekoizpen baliabideen erdia baldin badira ere)	Orekarik gabeko botere harremanak (txiro/aberats, gizon/emakume), garapen zuzena eta emakumeek osoki esku hartzea oztopatzen dutenak
4. Helburua	
Garapen eraginkorragoa, bidezkoagoa	Garapen zuzena eta iraunkorra, gizon eta emakumeak erabaki hartzaile egiten dituenak
5. Konponbidea	
Emakumeak dagoen garapen prozesuan integratzea	Kaltetuenei eta emakumeei beren egoeren kontrola ematea, eta harreman desoreketuak eraldatzea
6. Estrategiak	
- Emakumeen proiektuak - Emakumeek osatutakoak - Proiektu integratuak - Emakumeen produktibitatea handitzea - Emakumeen diru sarrerak handitzea - Emakumeek etxea zaintzeko duten ahalmena areagotzea	- Gizon eta emakumeek zehaztutako genero premia praktikoak identifikatu eta onartzea, haien bizitzak hobetzeko - Gizon eta emakumeen genero premia estrategikoak onartzea - Txiroen interes estrategikoak onartzea, gizabanakoetan oinarritutako garapenaren bidez

Jatorria: GTZ (1996): *Enfoques participativos sensibles a los aspectos de género en la Cooperación técnica*, Eschborn: GTZ. Honako testu honetatik egokitua: “Two Halves Make a Whole”, CIDA/MATCH Internastional Centre, Ottawa 1991.